

Elebideri eskaera kopuru laukoitza, Arrasateko “Kexa poteoari” esker

MARTXOAREN 13AN, Euskal Herrian Euskaraz taldeak kudeatzen duen Arrasateko Jai Zale tabernan eseri ziren Aitor Montes medikua eta Garazi Sagasta erizaina. Helburua: Elebiderako, Behatokitako, Sendagilean Elkargorako eta Osakidetzak eskualdeka dituen zuzendaritzetarako osasun alorreko kexak eta iradokizunak biltzea. Lan moldea: Ostirala zela baliatuz, poteoan lasai ederrean zebiltzanek kexak helaraziko zizkieten bi boluntarioei eta haiek arduratuko ziren bidalketak egiteaz.

90 kexa eta iradokizun jasotzea lortu zuten, eta Montesez adierazi duenez, gainezka egin zuten eta ezin izan zituzten eskaera guztiak bideratu. 90 horietatik 78 Elebidera bideratu dituzte. Alderaketa egiten hasita, 2013an Elebiden 228 kexa jaso zituzten zerbitzu publikoei lotuta, eta horietako 20 baino ez ziren osasunari lotutakoak. Beraz, kopurua



Aitor Montes medikua eta Garazi Sagasta erizaina, arrasatearrek egindako kexa eta iradokizunak bideratzen. Beraiek ez zuten poteatzeko astirik izan.

laukoiztu da arratsalde bateko ekinaldian.

Antolatzaileek, 2015ean, Arrasateko bilketa modua erabiliz edo bestelako moduez, 2.000-3.000 kexa lortu nahiko lituzkete. Herritarren presioa, eskaria, eskaintza bihur daitekelako.

“Haur eskolak euskaraz”, eta eremu mistoan

NAFARROAN, Euskararen Legea aldatzea lortu da. Eremu ez-euskaldunean, eskola publikoetan euskarazko adarrak ireki ahal izango dira, eskaera kopuru jakin bat baldin badago. Ateak zabalik dira eremu horretan, baina horrek ez du esan nahi beste eremuetan euskarazko adarrak eskatu ahala irekitzen direnik. Eremu mistoan, Iruñean zehazki, “haur eskolak euskaraz” eskatzen ari dira aspaldidanik. Azken protesta martxoaren 11n egin dute, Arrotxapea auzotik Udaletxe plazaraino, eta Iruñeko Udalari eskatu diote haur eskola gehiago prestatzeko euskaraz.

Gaur egun bi haur eskola baino ez daude, biak Txantrea auzoan. Horietako bat Arrotxapea eraman-go dute. Alabaina, eskaera eskaintza baino handiagoa da Nafarroako hiriburuan.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Zergatik egoskortu AHTrekin?

ABIADURA HANDIKO TRENAREN aldekoek, batez ere Espainia, Madril, Gasteiz eta Iruñeko gobernuek, baina baita etekin handienak aterako dituzten zementugile eta ingeniariak enpresek ere, azken egunotan sekulako zaplaztekoa jaso dute aditu independenteen partetik. Laburrean, legebiltzarreko egoitzan azaldu dute AHTa –eta bereziki “Euskal Y”-a– ez litzatekeela eraikitzen hasi behar inoiz, finantzen ikuspegitik ez delako bideragarria, ezta jasagarria ere, ingurumenari eta gizarteari begiratuz gero.

Erakundeei proposatu diete proiektua geratzea, eta aurrera segituz gero, abiadura handiko linea birmoldatzea erdibidean geltokiak izango dituen ohiko abiadurako trenbide bat eginez. Hasierako proiektuak EAEko hiru hiriburuak lotzea baino ez du helburu eta Iruñea korridore baten bidez konektatzea. Txartelen prezioa 25 euro ingurukoa litzateke hiriburu batek bestera, eta Madrilerako joateko berriz 75 eurokoa. Elitista izateaz gain, ez luke inolako abantailarik izango autobusarekin alderatuta, hau askoz merkeagoa baita eta ibilbide bera egiteko minutu gutxi batzuk gehiago besterik ez baititu behar. Europarekiko kone-

xioa funtsezko helburutzat dute, baina momentu honetan ez du inolako datarik.

AHTk Euskal Herrian 10.000 milioi euroko aurrekontua zuen: 6.000 milioi “Euskal Y” delakoak, 3.150 milioi Nafarroako korridoreak eta beste 1.000 milioi Lapurdiko zatiak. Oraindik 4.000 milioi euro jarri behar omen dira. Gauzak horrela, zergatik egoskortu ingurumena eta ekonomia kaltetzen dituen proiektu antisoziala aurrera eramaten? Arrazoi bakarra baizik ezin daiteke egon: proiektua inoiz eztabaidatu nahi izan ez duten horien interes politikoa, beste talde sozial, herrikoi eta politikoen –bereziki ezker abertzalearen ingurukoak– eta ETaren ikuspegiaren aurrean inposatu izanagatik. Orain proiektu hori geraraztea litzateke, praktikan, “estremistei” arrazoiak ematea. Eta hori ezin dute onartu. Kosta ahala kosta egingo dute, hori bai, diru publikoarekin, nahiz eta aditu horietako batek dioen “helikoptero zerbitzua” errentagarriagoa litzatekeela “Euskal Y”-a baino. Latza da hori gero, egoskortuta dauden instituzioetako kideentzat!

Juan Mari Arregi